das y necesidades de todos los colectivos del municipio.

Para ello, en esta Ordenanza se recogen las condiciones que
deben respetar las obras realizadas en la vía pública y sus insta-
laciones, los elementos vinculados a actividades comerciales, se
definen los usos impropios del espacio público, se concretan los
aspectos mínimos a tener en cuenta para la realización de even-

an ekitaldiak antolatzekeo edo udal instalazioak erabiltzeko gutxieneko baldintzak jasotzen ditu; eta merkataritza-jardueretan zein apartakaleketan aparkatzeko debekua jasotzen duten plakak emateko baldintzak definitzen ditu.

Udal Ordenantza hau idazterakoan aintzat hartu dira hiri-ingurunean larrialdi-egoeretan irisgarritasunari eta segurtasunari buruz finkatutako irizpide nagusiak (indarreko araudiak ezarritakoak). Zehazkiago, kontuan hartu da hiri-inguruneen, espazio publikoen, erai-kinen eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasun baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituen apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.—*Xedea*

Ordenantza honen xedea da arautzea espazio publikoan eman daitezkeen jarduerak, jar daitezkeen instalazioak edota egin daitezkeen okupazioak, eta horiek bateratzea erabilera komun edo orokorrekin.

Era berean, udal instalazioak (karpa, agertokiak, instalazio osagarriak, eta abar) erreserban hartu eta erabiltzeko irizpide orokorrak finkatzen ditu testuak.

2. artikulua.—*Aplikazio-eremua*

Ordenantza hau aplikatuko zaie erabilera publikoko eremu guztiei, titularrak edozein izanda ere. «Erabilera publikoko»ko izaera zehaztuko dute eremuaren kokapenak edota indarreko planeamenduak.

Beste administrazio publikoek kudeatutako erabilera publikoko ondasunak erabiltzerakoan ere, Ordenantza honetan xedatutakoari men egingo zaio.

Interes orokorreko ekitaldiak antolatzekeo (interes soziala, kulturala edo antzekoak), egoki irizitako Ordenantzaren atalak eten ahalko ditu Udalak, aldi batez.

Ordenantza honen aplikazio-eremutik at egongo dira ostalaritza-establezimenduen terrazak, horiek badute-eta berezko ordenantza.

Udal mugarte barruko kaleko salmenta ere, berariazko ordenantza bidez arautua egongo da.

3. artikulua.—*Izaera juridikoa*

Bide publikoaren okupazioek eta aprobetxamenduek erabilera komun bereziaren izaera juridikoa dute; jabetza-eskubidearen salbuespen gisa ematen dira, hirugarrenen eskubideen kalterik gabe; eta aurretiazko udal baimena behar dute, zeina Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera emango baita.

Baimenok, gainera, prekarioan emanda daudela joko da, eta errebotatu ahalko dira, interes publikoko arrazoiak tarteko, kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe. Partikularrak ez dauka baimena eskuratzeko berezko eskubiderik: diskrezionalki emango zaio. Hori bai: ebazpenak, edozein izanda ere, behar bezala arrazoitua egon beharko du.

Bide publikoaren okupazio eta aprobetxamenduak eten ahalko dira aldi batez. Hala egin behar izanez gero, elementu guztiak kendu beharko dira bertatik. Udalak halako eteteak agindu ditza-ke berak sustatzen, baimentzen edo interes orokorrekotzat jotzen dituen jaiak edota ekitaldi kulturalak, ekitaldi zibikoak edo kirol-ekitaldiak daudenean.

Ez zaie bide publikoaren okupaziorako edo aprobetxamendurako baimenik emango pertsona fisiko edo juridikoei, baldin eta exekuzio-prozeduraren edo premiamenduzko bidearen bitartez eska daitezkeen zorrak badituzte Udalarekin.

tos en la vía pública o utilización de instalaciones municipales y se definen las condiciones de otorgamiento de placas de prohibido aparcar en actividades comerciales y aparcamientos.

En la redacción de la presente Ordenanza se han tenido en cuenta los principales criterios en materia de accesibilidad en el entorno urbano y seguridad en caso de situaciones de emergencia, establecidas por la normativa vigente, especialmente por el Decreto 68/2000, de 11 de abril, por el que se aprueban las normas técnicas sobre condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificaciones y sistemas de información y comunicación.

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.—*Objeto*

La presente Ordenanza tiene por objeto la regulación de las actividades, instalaciones y ocupaciones que pueden desarrollarse en el espacio público, a fin de ordenar y conciliar los mismos con los usos comunes o generales.

Asimismo, se establecen los criterios generales para la reserva y utilización de instalaciones municipales (carpa, escenarios, instalaciones complementarias, etc).

Artículo 2.—*Ámbito de aplicación*

Será aplicable la Ordenanza a todos los espacios de uso público, con independencia de su titularidad. La condición de uso público vendrá determinada tanto por la situación de hecho, como por el planeamiento vigente.

Las utilizations de los bienes de uso público cuya gestión corresponda a otras Administraciones se sujetan igualmente a las prescripciones de esta Ordenanza.

Con motivo de la celebración de actos de interés general (social, cultural o similares), el Ayuntamiento podrá suspender temporalmente todos aquellos apartados previstos en la presente ordenanza que considere necesario.

Se excluyen del ámbito de aplicación de la presente Ordenanza las terrazas vinculadas a establecimientos de hostelería, que estarán reguladas por su Ordenanza correspondiente.

Asimismo, se excluyen también todas las actividades de venta ambulante dentro del término municipal, que estarán reguladas por su Ordenanza correspondiente.

Artículo 3.—*Naturaleza jurídica*

Las ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública tienen la categoría jurídica de uso común especial, se otorgan salvando el derecho de propiedad y sin perjuicio del de terceros y requieren para su ejercicio de autorización municipal previa, que se concederá de acuerdo con lo previsto en la presente Ordenanza.

Se entienden, además, otorgadas en precario y son revocables por razones de interés público sin derecho a indemnización. El particular no ostenta derecho alguno a la concesión de la autorización, por lo que su otorgamiento es discrecional sin perjuicio de la necesaria justificación de la resolución que se adopte.

Tales ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública podrán suspenderse temporalmente, debiendo ser retirados todos los elementos que las componen, en el supuesto de celebración de actividades festivas, culturales, cívicas y deportivas promovidas o autorizadas por el Ayuntamiento y/o que éste considere de interés general.

No se concederán autorizaciones de ocupación o aprovechamiento de la vía pública a aquellas personas físicas o jurídicas que mantengan deudas con este Ayuntamiento, que resulten exigibles por el procedimiento ejecutivo o de apremio.

II. KAPITULUA

BIDE PUBLIKOAN OBRAK EGITEA ETA HORIEK SEINALEZTATZEA

4. artikulua.—*Baimendutako elementuak*

Kapitulu honetan zehazten dira, batetik, bide publikoan egin beharreko obrek bete beharreko baldintzak (izan obra publikoak ala pribatuak); eta bestetik, bide publikoan eragina duten obren instalazio osagarriek bete beharrekoak (aldi baterako hesiek; aldamiok; karga-jasogailuek; babes-hegalek; siloek; edukiontziek; materialak biltzeko eremuek; obra-etxolek; eta antzekoek).

5. artikulua.—*Baldintza orokorrak*

Bide publikoan egin beharreko obrak, edota bide publikoan eragina duten behin-behineko obra-instalazio osagarriak, behar bezala seinaleztatu eta babestu beharko dira, pertsonen segurtasun fisikoa bermatua egon dadin, eta oinezkoen joan-etorriak ahalik eta errazena eta erosoena izan daitezzen.

Obrek oinezkoen ibilbideei eragiten dietenean, 1,50 m-ko gutxieneko iraganbidea bermatu beharko da. Espaloia zabalagoa bada, haren zabalaren adinakoa izan beharko da iraganbidea ere. Bestalde, oinezkoen joan-etorriak ugariak diren tokietan, 1,50 m-ko zabalera aski ez bada, iraganbidea zabalagoa izatea xedatu ahal da. Edozelan ere, ezin bada ezarritako gehienezko zabalera bermatu, ordezko ibilbidea egokitu beharko da.

Libre utzi beharko dira ureztatze-ahokak, suteen aurkako ur-har-tuneak eta kutxatilen erregistroak, dagozkien zerbitzu publikoek erabili behar badituzte.

Hiri-altzarien kokapena ere errespetatu beharko da. Hala ere, hiri-altzarien bat lekuz aldatzea beharrezkoa balitz, hori egiteko aukera aztertuko da, interesdunak aurretiaz eskaera eginda. Hiri-altzarien edozein lekualdatze interesdunaren kontura izango da, eta udal langileek egingo dute.

Zangak, laginketak, materialak biltzeko guneak edota makineriarako eremuak eta antzekoak, hesi iraunkor eta etengabeen bidez babestuko dira; hesiok ez dute ertz bizirik izango, ez dira irristatuko, eta iraultekarekiko erresistentzia izango dute. Babestu beharreko eremuaren inguru osoan zehar jarriko dira aipatutako hesiak. 50 cm gorde beharko dira, gutxienez, perimetroan kanpoen dagoen tokitik. Ezingo da hesien ordezkariak, sarerik, xingolarik edo antzekorik jarri.

Obrarako elementu osagarriak jartzerakoan, kontuan hartu behar da trabarik ez egitea ibilgailuen ikusgarritasunari —bereziki, bidegurutzeetan eta garajeen irteeretan—.

Bide edo eremu publikoetan horrelako elementuak jartzeko, xedatu ahal da aurretiaz berme-gordailua eratzea, eremu publikoan sor litezkeen kalteak konpontzeko.

Auzokoek zarata ahalik eta gutxien pairatu dezaten, premiazko edota ezinbesteko kasuetan salbu, obrak astelehenean ostiralera egin beharko dira (jaiegunak kanpo), 8:00ak eta 19:00ak bitartean. Zarata handien eragiten duten lanak (eraistek, zultzeak, eta abar), 9:00etatik aurrera egin beharko dira.

6. artikulua.—*Laginketak eta zangak bide publikoan*

Ezingo da laginketarik edo zangarik utzi zabalik asteburuetan, edota jaiegun bi edo gehiagotan zehar; zuloa hormigoiz estali beharko da, gutxienez, eta aglomeratu edo zoladura jartzeko prest utzi beharko da.

Oinezkoen joan-etorriak errazteko metalezko xaflen ertzei dago-kienez, berriz, espaloia baino 2 cm altuagoak izan daitezke, gehienez ere.

Kutxatilen ertzak babestuta egon behar dira, edota lurrera lotutako egurrezko zein metalezko xaflekin estalita egon behar dute. Bestalde, ezin da obra-hondakinik inon ere pilatu.

CAPÍTULO II

EJECUCIÓN Y SEÑALIZACIÓN DE OBRAS EN LA VÍA PÚBLICA

Artículo 4.—*Elementos autorizados*

El presente capítulo especifica los requisitos mínimos que deben cumplir las obras a realizar en la vía pública, tanto de promoción pública como privada, así como las instalaciones provisionales complementarias de obras que afecten a la vía pública, tales como valla-dos provisionales, andamiages, montamateriales, viseras de protección, plataformas elevadoras, silos, contenedores, zonas de acopio de materiales, casetas de obra y demás elementos similares.

Artículo 5.—*Condiciones generales*

Las obras a realizar en la vía pública y/o las instalaciones auxiliares provisionales de obras que afecten a la vía pública, deberán señalizarse y protegerse adecuadamente, de manera que se garantice la seguridad física de las personas y se asegure la mayor facilidad y comodidad del tránsito peatonal.

Quando las obras afecten a itinerarios peatonales, se deberá garantizar un paso mínimo de 1,50 metros. En el caso de que la acera tenga un ancho inferior, el paso deberá ser igual a ésta. Asimismo, en aquellos espacios que por razón de la intensidad del tránsito peatonal pueda resultar insuficiente una anchura de paso de 1,50 metros, se podrá exigir una anchura mayor. En todo caso, si no es posible garantizar la anchura mínima exigida, se deberá habilitar un itinerario alternativo.

Deberán dejarse libres, para su inmediata utilización por parte de los servicios públicos correspondientes, las bocas de riego, los hidrantes de protección contra incendios y los registros de arquetas de servicios públicos.

Se deberá respetar la ubicación del mobiliario público existente. No obstante, si fuera necesario modificar provisionalmente la ubicación de algún elemento del mobiliario urbano, se estudiará la posibilidad de modificación, previa solicitud del interesado. La modificación de cualquier elemento del mobiliario urbano será por cuenta del interesado y se llevará a cabo por parte de los Servicios Municipales.

La protección de las zanjas, catas, zonas de acopio de materiales y maquinaria u otras análogas se realizará mediante vallas estables y continuas, sin cantos vivos, no autodeslizantes y con resistencia al vuelco. Se dispondrán de manera que ocupen todo el perímetro de la zona a proteger y separadas al menos 50 cm. desde su parte más saliente. No se admitirá la sustitución de las vallas por cuerdas, mallas, cintas o elementos análogos.

Todos elementos auxiliares de obra se situarán de modo que no dificulten la visibilidad de los vehículos, especialmente en los cruces y salidas de garajes.

La colocación de estos elementos en las vías y espacios públicos podrá llevar aparejada la exigencia de la previa constitución o depósito de garantía que asegure la reparación de los daños que pudieran causarse en el espacio público.

Para minimizar las molestias por ruidos al vecindario, salvo casos urgentes o de fuerza mayor, las obras se deberán realizar de lunes a viernes, excepto festivos, entre las 8:00 y las 19:00 horas. Los trabajos que generen un mayor nivel de ruido (demoliciones, picados, etc.) se deberán realizar a partir de las 9:00 horas.

Artículo 6.—*Catas y zanjas en la vía pública*

Los fines de semana, o en caso de dos o más días festivos consecutivos, no se podrá dejar ninguna cata o zanja abierta, deberá estar como mínimo hormigonada y a la espera del aglomerado o pavimento.

La colocación de planchas metálicas y similares para facilitar el tránsito peatonal deberá realizarse de forma que el contorno de la plancha no sobresalga más de dos centímetros de la cota de la acera.

Las arquetas deberán estar rematadas o tapadas con tableros o planchas metálicas sujetas al pavimento y no quedarán escombros amontonados en sitio alguno.

Zoladuran laginketak edo zangak egin ostean, lanak hasi aurretik zeunden bezalaxe utzi beharko da.

7. artikulua.—Aldamioak, babes-hegalak eta/edo karga-jasogailuak

Aldamioaren oinarrian egurrezko takoak jarri beharko dira (aldamioak zuzenean zoladuran eutsi ez daitezten).

2,20 m-tik beherako osagaiekin txarrantxatutako aldamio-zatiak behar bezala seinaleztatu eta babestuko dira, lurreraino, ibilbide osoan zehar, ikusmen-arazoak dituztenei irisgarritasuna errazteko.

Karga-jasogailuei dagokienez, itxitura egin beharko zaie inguru osoan, eta, obrako laneguna amaitzen denean, ondo itxita geratu beharko da itxitura hori.

8. artikulua.—Plataforma jasotzaileak eta obrak bide publikoan

Lanak eta makineria dauden eremua behar bezala babestu beharko da. Horretarako, lan-eremua hesiekin mugatuko da, langileak ez direnak inguruan egon edo ibili ez daitezten.

Oinezkoen iraganbideetan, edota oinezkoen ibilbidea aldatu ezin daitekeen leketan (atarietako, dendetarako eta abarrerako sarbideetan), babes-hegala jarri beharko da, bide publikora ezer erri ez dadin.

9. artikulua.—Obra-hondakinatarako edukiontzia eta zakuak

Zoladura ez hondatzeko, berariak debekatzen da obra-hondakinatarako edukiontzia espaloi gainean edota oinezkoen eremuetan jartzea: asfaltatutako aparkalekuetan kokatu beharko dira.

Zoladura hondatuko ez duten zakuak, berriz, oinezkoen eremuetan jarri ahal izango dira, baldin eta, jarri eta gero, oinezkoen joan-etorriak oztopatzen ez badituzte eta, gutxienez, oztoporik gabeko 2,00 m-ko iraganbidea uzten badute.

Edukiontzietara eta zakuetara botatakoa kontrolatuko da, horien sakonera gainditu ez dezan.

Edukiontzia eta zakuak bide publikotik kendu beharko dira honako kasu hauetan:

- Baimenaren epea agortzen denean.
- Beteta egon bezain laster (hustu ditzaten).
- Ostiraleko 18:00etatik asteleheneko 8:00etara bitartean. Ostirala edo aurreko egunak, zein astelehena edo osteko egunak jaiegunak badira, epe hori luzatu egingo da hasierako edo amaierako lehen egun baliodunera.

Edukiontzia edo zakuak bide publikotik kendu eta gero, tokia garbi utzi beharko da.

Edukiontzia txukun eta garbi egongo dira.

10. artikulua.—Obra-etxolak, siloak, materialak biltzeko guneak eta antzekoak

Aipatutako guztiak oinezkoen ibilbideetatik at kokatuko dira —ahal dela, aparkalekuetan—.

Dena delako elementu osagarria bide publikotik kendu eta gero, tokia garbi utzi beharko da.

III. KAPITULUA

MERKATARITZA-JARDUERETARA LOTUTAKO ELEMENTUAK

11. artikulua.—Baldintzak

Bide publikoan merkataritza-jardueretara lotutako elementuak jartzeko baimena emango da (publizitate-kartelak; produktuak, ikusgai; haurrentzako jolas-makinak; salmenta automatikoko makina txikiak; bankuak; eta abar), baldin eta oinezkoen joan-etorriei traba

Los pavimentos afectados por catas o zanjas deberán dejarse en las mismas condiciones en las que se encontraban con anterioridad a la ejecución de los trabajos.

Artículo 7.—Andamiajes, viseras de protección y/o montacargas

El apoyo de los pies del andamiaje deberá realizarse sobre tacos de madera, evitando el apoyo directo sobre el pavimento.

Los elementos de andamiaje que se arriostren con elementos de altura inferior a 2,20 metros deberán ser señalizados y protegidos adecuadamente hasta el suelo, en longitudinal al itinerario, para facilitar la accesibilidad a las personas con dificultad de visión.

Las instalaciones de montamateriales deberán protegerse mediante un cierre perimetral, que deberá quedar perfectamente cerrado al término del horario de trabajo de la obra.

Artículo 8.—Plataformas elevadoras y obras sobre la vía pública

Se deberá proteger adecuadamente la zona de afección de los trabajos y de la maquinaria. Para ello, se delimitará mediante vallas la zona de trabajo evitando que personas ajenas permanezcan o circulen por las proximidades.

En caso de zonas con tránsito peatonal, o en aquellos casos en los que no sea posible la modificación del itinerario de circulación de los peatones (acceso a portales, locales comerciales, etc) se deberá instalar una visera de protección para evitar posibles daños derivados de la caída de objetos a la vía pública.

Artículo 9.—Contenedores y sacas de escombros

Con el fin de evitar daños en el pavimento, se prohíbe expresamente la colocación de contenedores de escombros sobre aceras y espacios peatonales, debiéndose ubicarse en zonas de aparcamiento asfaltadas.

Las sacas de escombros, cuya retirada no sea susceptible de causar daños en el pavimento, podrán situarse sobre zonas peatonales, siempre y cuando una vez colocadas permitan un itinerario peatonal permanente, libre de obstáculos, de 2,00 metros de anchura, como mínimo.

Se controlará el material contenido para evitar que este sobresalga de la vertical de los límites del contenedor.

Los contenedores y sacas de escombros deberán ser retirados de la vía pública en los siguientes casos:

- Al expirar el plazo de la autorización.
- En cuanto estén llenos, para proceder a su vaciado.
- Desde las 18:00 horas del viernes a las 8:00 horas del lunes, prorrogándose el período de retirada, de ser festivos los viernes, o días anteriores, y los lunes, o días posteriores, al primer día hábil inicial y final.

Al retirar el contenedor, la superficie de la vía pública ocupada deberá dejarse en perfectas condiciones de limpieza.

Los contenedores se encontrarán en perfecto estado estético, de limpieza y ornato.

Artículo 10.—Casetas de obra, silos, zonas de acopio de materiales y elementos similares

Estos elementos se situarán fuera de los itinerarios peatonales, preferentemente ocupando zonas de aparcamiento.

Tras la retirada del elemento la superficie de la vía pública ocupada deberá dejarse en perfectas condiciones de limpieza.

CAPÍTULO III

ELEMENTOS VINCULADOS A ACTIVIDADES COMERCIALES

Artículo 11.—Condiciones

Se permite la ocupación de la vía pública con elementos vinculados a actividades comerciales (carteles publicitarios, productos en exposición, máquinas recreativas para niños, pequeñas máquinas de venta automática, bancos y similares) siempre y cuando

egiten ez badiete: 2,00 m-ko iraganbidea bermatu beharko da, gutxienez, trafikoa edo arkupeak dituzten kaleetako espaloietan; eta 3,50 m-koa, berriz, oinezkoen kaleetan.

Aipatutako elementuak espazio publikoan egon ahalko dira 10:00etatik 22:00etara bitartean. Ordutegi horretatik kanpo, bide publikotik kendu beharko dira egunero-egunero, eta lokal barruan gorde.

Dendek ezin dituzte bozgorailuak edo musika jarri bide publiko begira, ez bada Udalak aurretiaz baimendutako ekitaldiak ospatuko dituztela.

IV. KAPITULUA

ESPASIO PUBLIKOA OKER ERABILTZEA

12. artikulua.—*Espazio publikoa oker erabiltzea*

Debekatuta dago espazio publikoa eta bere elementuak oker erabiltzea, hau da, gainerakoek espazio publiko hori erabil dezatela ekin edo zailtzen duten jarduerak egitea.

Debekatuta daude espazio publikoaren eta bere elementuen erabilera oker hauek:

- Bide eta espazio publikoetan kanpatzea, hau da, espazio publikoetan edota bertan dauden elementu zein altzarrietan kanpin-dendak, ibilgailuak, autokarabanak edo karabanak puntualki edo modu iraunkorrean jartzea. Salbuespena: toki zehaztutarako emandako baimenak.
- Aipatutako eremuetan lo egitea, egunez zein gauez.
- Banku eta eserleku publikoak berezkoa dutena ez den beste xede batzuetarako erabiltzea.
- Norbanako edo taldeek espazio publikoa erabiltzea —espazio publiko horren berezko xedea aintzat hartu gabe—, eta gainerakoek ezin erabiltzea, hau da, erabilera pribatiboa, ezohikoa, higinenearen edota gizalegearen aurkakoa egitea. Bereziki, espazio publikoa oker erabiltzen ari dela joko da, norbanako batek edo batzuek espazio publiko horren zati bat maiztasun batekin zein jarraian, eta modu trinkoan erabiltzen badute eta, ondorioz, gainerako herritarrek zati hori erabiltzeko aukerarik ez badute.
- Iturrietan, urmaeletan edo antzekoetan arropa garbitzea.
- Espazio publikoan kozinatzea. Salbuespenak: herriko jailetan, udal-jardueretan edota Udalak diruz lagundutako jardueretan horretarako egokitutako tokietan kozinatzea; edota kozinatzeke berariazko udal baimena izatea.

V. KAPITULUA

EKITALDIK BIDE PUBLIKOAN

13. artikulua.—*Aplikazio-eremua*

Aurretiazko baimena eskatu beharko da bide publikoan izatera pribatuko ekitaldiak egiteko, eta kapitulu honetan xedatutakoa bete beharko da.

Kalean musikari, artetari, publizitateari lotutako jarduerak, informazio jarduerak, diru-bilketak edo antzekoak egiteko, baldin eta bide publikoan instalaziorik jarri behar ez bada (standak, karpak, agertokiak, megafonia, eta abar), ez da behar aurretiazko udal baimenik.

14. artikulua.—*Baldintza orokorrak*

Bide publikoan edozein ekitaldi egiteko baimen-eskaera, ekitaldiaren data baino bi aste lehenago eskatu beharko da, gutxienez.

Ekitaldia antolatzen dutenek egiaztatu beharko dute erantzukizun zibileko aseguruak kontratatu dutela, berariaz, instalazioen egoera objektiboak edota bertan lan egiten dutenen jarduerak bertaratuei eragin ahal dizkien kalteei aurre egiteko.

garantitzen un itinerario peatonal permanente, libre de obstáculos, de 2,00 metros de anchura, como mínimo, en aceras de calles con circulación rodada o soportales y de 3,50 metros en calles peatonales.

Estos elementos podrán permanecer en el espacio público en un horario comprendido entre las 10:00 y las 22:00 horas. Una vez finalizado este horario se deberán retirar diariamente del espacio público y guardarse en el interior del local.

No se permite la instalación de altavoces o música hacia la vía pública por parte de las actividades comerciales, salvo para la celebración de eventos puntuales previamente autorizados por el Ayuntamiento.

CAPÍTULO IV

USOS IMPROPIOS DEL ESPACIO PÚBLICO

Artículo 12.—*Uso impropio del espacio público*

Queda prohibido hacer un uso impropio de los espacios públicos y sus elementos, de manera que impida o dificulte la utilización o el disfrute por el resto de las personas usuarias.

No están permitidos los siguientes usos impropios de los espacios públicos y de sus elementos:

- Acampar en las vías y los espacios públicos, acción que incluye la instalación puntual o estable en estos espacios públicos o en sus elementos o mobiliario en ellos instalados, de tiendas de campaña, vehículos, autocaravanas o caravanas, salvo autorizaciones para lugares concretos.
- Tampoco está permitido dormir de día o de noche en estos espacios.
- Utilizar los bancos y los asientos públicos para usos distintos a los que están destinados.
- La utilización intensiva del espacio público por parte de personas o grupos de personas, que resulte excluyente del uso por parte del resto de la ciudadanía, al realizarse la utilización con desprecio del destino natural mismo, por implicar ello un uso privativo, anormal, antihigiénico o incívico. En particular, se considera uso impropio del espacio público el uso que una o varias personas realizan de una concreta porción del mismo con carácter regular o continuo e intensivo, de modo que el espacio público se perciba como inaccesible por el resto de la ciudadanía.
- Lavar ropa en fuentes, estanques o similares.
- Cocinar en el espacio público, salvo en los lugares dispuestos al efecto, con ocasión de fiestas patronales o actividades municipales y/o subvencionadas por el Ayuntamiento, o cuando se cuente con autorización municipal expresa.

CAPÍTULO V

EVENTOS EN LA VÍA PÚBLICA

Artículo 13.—*Ámbito de aplicación*

Cualquier evento de carácter privado a celebrar en la vía pública deberá solicitar autorización previa y cumplir lo especificado en el presente capítulo.

La realización de actividades puntuales de música callejera, artísticas, publicitarias, informativas, cuestaciones, o similares, que no requieran la instalación de elementos auxiliares en la vía pública (stands, carpas, escenarios, megafonía, etc) no precisarán de autorización municipal previa.

Artículo 14.—*Condiciones generales*

La solicitud de autorización de cualquier evento a celebrar en la vía pública se deberá solicitar, como mínimo, con dos semanas de antelación a la fecha de celebración de dicho evento.

Los organizadores del evento deberán acreditar tener concertado un seguro que cubra la responsabilidad civil por daños a los concurrentes como consecuencia de las condiciones objetivas de las instalaciones o de la actividad del personal a su servicio, que se deberá contratar expresamente para el evento a realizar.

Instalazioak lurrera lotuko dira, baina bide publikoko zoladurara kaltetu gabe.

Karpek, etxolek eta antzeko elementuek, horiei buruzko araudiek xedatutakoa bete beharko dute.

Instalazioek, oztoporik gabeko 2,00 m-ko iraganbidea, gutxienez, bermatu beharko diete oinezkoei, trafikoa edo arkupeak dituzten kaleetako espaloietan; eta 3,50 m-koa, berriz, oinezkoen kaleetan. Era berean, libre utzi beharko dituzte ureztatze-ahoa, suteen aurkako ur-hartuneak eta kutxatilen erregistroak, dagozkien zerbitzu publikoek erabili behar badituzte.

instalatu diren elementuak berriak edo ia berriak izango dira, eta behar besteko segurtasun- eta estetika-baldintzak beteko dituzte.

Gainera, une oro bermatu beharko da erabiltzeko segurtasunaren eta suteen aurkako segurtasunaren eremuko indarreko lege-ria betetzen dela.

Bide publikoan janaria prestatu eta saltzen dutenek, berriz, Basauriko Udaleko Osasun Atalak finkatutako irizpideak bete beharko dituzte.

Oro har, ezingo dira erabili energia sorgailuak. Horrelakoak erabiltzeko baimena ematen den kasuetan, herritarrei edota oinezko-
ei enbarazu egingo ez dieten toki batean kokatuko dira, eta elkarbizitza ez asaldatzeko moduko zarata-maila zainduko dute.

Dena delako ekitaldia amaitzean, instalazioak guztiz desmuntatu, eta eramua garbitu beharko da.

Ekitaldia antolatzen dutenek, bestalde, autobabeserako plana eduki beharko dute, hala xedatzen baitu zenbait jarduerak, zentrok edo establezimenduk larrialdiei aurre egiteko dituzten autobabes betebeharrak arautzen dituen azaroaren 2ko 277/2010 Dekretuak.

15. artikulua.—Ordutegia

Oro har, bide publikoan egitekoak diren ekitaldiak ezingo dira 10:00ak baino lehenago hasi, eta 22:00ak baino lehenago amaitu beharko dira. Ostiraletan eta jaiegunen bezperetan, ordubetez luzatu ahal da denbora-tarte hori.

Ekitaldia amaitu, eta ordubete izango dute antolatzailleek egiturak desmuntatu, jaso eta eramua garbitzeko.

16. artikulua.—Udal karpa eta bestelako udal azpiegiturak erabiltzeko baldintzak

Oro har, Basauri udalerrian erroldatutako elkartei baino ez zaie utziko karpa, agertokiak eta instalazio osagarriak erabiltzen. Udalerritik kanpoko elkartei baimena emateko, berriz, beharrezkoa izango da dagokion udal batzordearen aurretiazko onespena eta, betiere, baimen hori interes orokorrerako edota herritarren onurarako denean baino ez da emango.

Karpa edota beste edozein udal egitura erabiltzeko, eskabidea aurkeztu beharko da, gutxienez, ekitaldia baino hilabete lehenago.

Datak esleitzeko, eskabideen jasotze-dataren hurrenkerari jarraituko zaio, zorrotz-zorrotz.

Oro har, karpa kenduta egongo da ekain bukaeratik irailaren erdialdera arte. Beraz, denbora-tarte horretan ez da ekitaldirik baimenduko karpan.

Bestalde, 10:00etatik 22:00etara erabili ahal izango da karpa, eta ostiral eta jaiegunen bezperan, ordubetez luzatu ahal izango da ordutegi hori. Ekitaldia amaitu, eta ordubete izango dute antolatzailleek egiturak desmuntatu, jaso eta eramua garbitzeko.

Udalaren berariazko baimena salbu, debekatuta egongo da karpa barruan janaria eta edaria saltzea.

Ekitaldia amaitutakoan, barrualdea jaso eta garbitu beharko da, eta ekitaldia egin aurretik zegoen bezalaxe utzi.

El anclaje de las instalaciones se realizará sin afectar al pavimento de la vía pública.

La presencia de carpas, casetas y demás elementos complementarios deberá atenderse a su reglamentación específica.

Las instalaciones deberán mantener un itinerario peatonal permanente, libre de obstáculos, de 2,00 metros de anchura, como mínimo, en aceras de calles con circulación rodada o soportales y de 3,50 metros en calles peatonales. Asimismo, deberán dejar libres, para su inmediata utilización por parte de los servicios públicos correspondientes, las bocas de riego, los hidrantes de protección contra incendios y los registros de arquetas de servicios públicos.

Los elementos a instalar deberán ser nuevos o seminuevos y poseer las suficientes condiciones de seguridad y estética.

En todo momento se deberá garantizar el cumplimiento de la normativa vigente en materia de seguridad de utilización y seguridad en caso de incendio.

La preparación y venta de alimentos en la vía pública deberá atenderse a las indicaciones realizadas desde el Departamento de Sanidad de este Ayuntamiento.

Con carácter general se evitará el uso de equipos de generación de energía. No obstante, en los casos en que sean autorizados, deberán ubicarse de manera que no ocasionen molestias a vecinos o peatones y el nivel de ruido emitido deberá mantenerse dentro de los límites que exige la convivencia ciudadana.

Al término del evento se deberán desmontar completamente todas las instalaciones y se efectuará una limpieza general del área afectada.

En lo referente a la obligatoriedad de los organizadores del evento de contar con un Plan de autoprotección se estará a lo dispuesto en el Decreto 277/2010, de 2 de noviembre, por el que se regulan las obligaciones de autoprotección exigibles a determinadas actividades, centros o establecimientos para hacer frente a situaciones de emergencia.

Artículo 15.—Horario

Con carácter general, los eventos a celebrar en la vía pública no podrán empezar antes de las 10:00 horas, y deberán finalizar antes de las 22:00 horas, permitiéndose una hora más los viernes y vísperas de festivos.

Una vez finalizado el evento, la organización dispondrá de una hora para las labores de desmontaje, recogida y limpieza de la zona utilizada.

Artículo 16.—Condiciones de uso de la carpa municipal y de otras infraestructuras municipales

Con carácter general, únicamente se permitirá el uso de la carpa, escenarios e instalaciones complementarias a asociaciones registradas en el Municipio de Basauri. La autorización a asociaciones de fuera Municipio de Basauri deberá contar con la aprobación previa de la Comisión del Área municipal correspondiente y estará justificada por causas de interés general o social.

La solicitud de uso de la carpa, así como de cualquier otra infraestructura de propiedad municipal, deberá ser solicitada, como mínimo, con un mes de antelación a la fecha de celebración de dicho acto.

La asignación de fechas y horarios se realizará por riguroso orden de recepción de las solicitudes.

Con carácter ordinario, la carpa permanecerá retirada desde finales de junio hasta mediados de septiembre, por lo que en esas fechas no se autorizarán eventos en la carpa.

El horario de uso de la carpa será de 10:00 a 22:00 horas, permitiéndose una hora más los viernes y vísperas de festivos. Una vez finalizado el evento, la organización dispondrá de una hora para las labores de desmontaje, recogida y limpieza de la zona utilizada.

Salvo autorización municipal expresa, no se permite la venta de productos alimenticios ni bebidas dentro de la carpa.

Una vez terminado el evento se deberá recoger y limpiar el espacio interior de la carpa, dejándolo en las mismas condiciones en las que se recibió.

Karpan jarriko diren karteletan, berriz, aintzat hartu beharko da hizkuntza-normalizazioari buruzko udal araudia; gainera, zaindu beharko da hizkuntza sexista eta biolentia ez izatea, eta osasun-ohitura txarrak ez sustatzea.

Era berean, udal karpan egingo diren ekitaldiek, Ordenantza honetako 14. artikuluko aplikagarri zaizkien baldintzak bete behar dituzte.

VI. KAPITULUA

APARKATZEA DEBEKATZEKO PLAKAK

17. artikulua.—*Pasabideak eta aparkaleku-erreserbak*

Ibilgailuen zaindegi jarduerak aparkatzea debekatzen duten plakak eskuratu ahal izango dituzte udal-mugarte osoan. Hala xedatzen du erakuntzetan aparkatzea arautzen duen indarreko Ordenantzak.

Gainerako jarduerari, berriz, aparkatzea debekatzeko plakak dagozkie, bakar-bakarrik, hiri-lurzoru industrialean kokatuta badaude. Hala eta guztiz ere, Udal Zerbitzu Teknikoen aurretiazko txostenarekin, aparkatzeko debekua jasotzen duten plakak jarri ahaliko dira bizitegi-guneetan edota bestelako jardueretan ere, aparkaleku publikoko plazarik kentzen ez badute, eta kaleko trafikoa eragozten ez badute.

Pasabidea ahalbidetzen duen jarduera behar bezala legeztatua egon behar da, eta irekitze- zein jarduera-lizentzia eduki behar du (edo, bestela, jarduera hasteko aurretiazko jakinarazpena aurkeztuta izan behar du).

Oro har, udal mugarte osoan ez da jarduera pribatuetarako aparkalekurik gordeko bide publikoan.

VII. KAPITULUA

BAIMENAK IZAPIDETZEA

18. artikulua.—*Obretarako behin-behineko instalazioak*

Bide publikoan obretarako elementu osagarriak jartzeko eskabideak egin daitezke, lizentzia-eskaerarekin edo obren jakinarazpenarekin batera, ala bereiz.

Aldamioak, babes-hegalak, karga-jasogailuak, obretarako etxolak, siloak, materialak biltzeko eremuak, plataforma jasotzaileak eta antzekoak bide publikoan jartzeko, instalazioa deskribatzen duen txostena (memoria eta planoak) erantsi beharko da. Txosten hori teknikari eskudunak sinatuta egon beharko da, eta zehaztu beharko du dena delako elementuek zein eremu hartuko duten.

19. artikulua.—*Merkataritza-jardueretara lotutako elementuak*

Bide publikoan merkataritza-jardueretara lotutako elementuak jartzeko (publizitate-kartelak, ikusgai jarri diren produktuak, haurrentzako jolas-makinak, salmenta automatikoko makina txikiak, bankuak eta antzekoak), eskabidea aurkeztu beharko da eta, bertan, honako hauek jasoko beharko dira:

- Jarri beharreko elementuaren deskribapena.
- Elementua jarri nahi den guneko oinplanoaren krokisa, eta zein merkataritza-lokali lotuta dagoen.
- Argazkia.

20. artikulua.—*Bide publikoan ekitaldia egitea*

Bide publikoan izaera pribatuko ekitaldia egiteko, baimen-eskera aurkeztu beharko da, zeinak honako hauek jasoko baititu:

- Ekitaldiaren deskribapen xehatua.
- Erakunde antolatzailearen ordezkariaren datuak, eta harremanetarako telefono-zenbakia.
- Ekitaldia non egingo den —kokapen-plano eta guzti—.
- Ekitaldia hasteko eta amaitzeko aurreikusitako ordutegia.

En los carteles a instalar en la carpa deberá tenerse en cuenta la normativa de normalización lingüística, el lenguaje no será sexista, ni violento y no fomentará malos hábitos de salud.

Asimismo, la celebración de eventos en la carpa municipal deberá cumplir con las condiciones establecidas en el artículo 14 de la presente Ordenanza que le resulten de aplicación.

CAPÍTULO VI

PLACAS DE PROHIBIDO APARCAR

Artículo 17.—*Vados y reservas de aparcamiento*

Las actividades de guardería de vehículos podrán obtener placas de prohibición de aparcamiento en todo el término municipal, de acuerdo con la vigente Ordenanza reguladora del aparcamiento en la edificación.

El resto de actividades solamente obtendrán placas de prohibición de aparcamiento si están ubicadas en zonas industriales. No obstante, previo informe de los Servicios Técnicos municipales, se podrá autorizar la colocación de placas de prohibición de aparcamiento en zonas residenciales a otras actividades, siempre y cuando no supongan la eliminación de ninguna plaza de aparcamiento público y no interfieran en el tráfico rodado de la calle.

La actividad a la que se vincula el vado debe estar debidamente legalizada, debiendo contar con Licencia de Apertura y Funcionamiento, o habiendo presentado Comunicación Previa de inicio de actividad.

Con carácter general, en todo el término municipal no se reservarán espacios de aparcamiento en la vía pública para actividades privadas.

CAPÍTULO VII

TRAMITACIÓN DE LAS AUTORIZACIONES

Artículo 18.—*Instalaciones provisionales de obra*

Las solicitudes de ocupación de vía pública para la instalación de elementos auxiliares de obra, se podrán realizar de forma conjunta o independiente de la solicitud de licencia o comunicación de las obras a las que darán servicio.

La solicitud de ocupación de vía pública para la instalación de andamiajes, viseras de protección, montacargas, casetas de obra, silos, zonas de acopio de materiales, plataformas elevadoras y elementos similares deberá adjuntar un informe descriptivo de la instalación (memoria y planos), suscrito por técnico competente, especificando la zona de ocupación de los elementos a colocar.

Artículo 19.—*Elementos vinculados a actividades comerciales*

Las solicitudes de ocupación de vía pública para la instalación de elementos vinculados a actividades comerciales (carteles publicitarios, productos en exposición, máquinas recreativas para niños, pequeñas máquinas de venta automática, bancos y similares) deberán presentar un escrito de solicitud incluyendo:

- Descripción del elemento a instalar.
- Croquis en planta de la zona en la que se pretende ubicar el elemento con referencia al local comercial.
- Fotografía.

Artículo 20.—*Celebración de un evento en la vía pública*

Para solicitar la autorización para la celebración de un evento de carácter privado en la vía pública se deberá presentar un escrito de solicitud incluyendo:

- Descripción detallada del evento.
- Datos del representante de la entidad organizadora y teléfono de contacto.
- Espacio de celebración, incluyendo plano de ubicación.
- Horario previsto de comienzo y de finalización.

- Behin-behineko instalazioak (karpak, agertokia, megafonia, eta abar).
- Bertaratuei eragin ahal zaizkien kalteei aurre egiteko erantzukizun zibileko aseguru, Ordenantza honetako 14. artikulua xedatutakoaren arabera.
- Elikagaien manipulazailer txartela (elikagaiak prestatu edo salduko badira).

Ekitaldian udal karpa edota beste edozein udal azpiegitura erabili behar izanez gero, horretarako eskabidea ere aurkeztu behar da.

21. artikulua.—*Aparkatzea debekatzeko plakak*

Jarduera baten sarbidean aparkatzea debekatzeko duten plakak jartzeko baimena lortzeko, eskabidea aurkeztu behar da, honako hauekin batera:

- Jardueraren kokapen zehatza.
- Jardueraren titularra.
- Ibilgailu kopurua (jarduera ibilgailuen zaintzari badagokio).
- Lokalerako sarbidearen argazkia.

VIII. KAPITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

22. artikulua.—*Instalazioak baimenik gabe jartzea*

1. Udal agintaritzak, kautela-neurri gisa, berehala kendu ahal izango du bide publikoan baimenik gabe jarritako edozein elementu, dagozkion zehapenak ezartzeko aukeraren kalterik gabe.

2. Jabetza edo erabilera publikoko lurzorua halako instalazioekin okupatzen bada dagokion baimenik gabe, arduradunari indarreko ordenamendu juridikoan aurreikusitako zehapenak ezarri ahaliko zaizkio, aurretiaz dagokion zehapen-espedita izapidetuta. Aurreko guztia gorabehera, erabilera publikoko lurzorua okupatu izanagatik tasak ordaindu behar dira.

23. artikulua.—*Baimenean jasotako baldintzak ez betetzea*

Ordenantza honetan edota emandako baimenean jasotako baldintzak bete ezean, indarreko legeriak aurreikusitako zehapen ekonomikoa ezarriko da, aurretiaz dagokion zehapen-espedita izapidetuta. Horrez gain, baimena baliogabetu egin ahal da, eta instalazioa berehala kenduarazi, baldin eta Udalak egindako errekerimendua desobeditzen bada.

24. artikulua.—*Arau-hausteen sailkapena*

Ordenantza honetan jasotako arau-haustea izango dira arinak, astunak eta oso astunak.

1. Falta arinak dira:
 - a) Ordenantza honek agindutako ezaugarri teknikoak betetzen ez dituzten elementuak edo instalazioak jartzea bide publikoan.
 - b) Elementuak baimendutako kokapenetik kanpo jartzea.
 - c) Finkatutako ordutegia ez betetzea.
 - d) Instalazioa txukun eta garbi ez mantentzea.
 - e) Hiri-altzariak hondatzea.
 - f) Udal-baimena ez erakustea.
 - g) Espazio publikoaren erabilera desegokiak (12. artikulua).
 - h) Hizkuntza-normalizazioa betetzen ez duten, edota hizkuntza sexista, biolentoa, edota osasun-ohitura txarrak sustatzen dituen hizkuntza darabilten kartelak jartzea udal karpan.
 - i) Ordenantza honetan ezarritako baldintzak ez betetzea, ez betetze hori falta astuntzat edo oso astuntzat jotzen ez denean.

- Instalaciones provisionales (carpas, escenario, megafonía, etc, ...).
- Copia del seguro que cubra la responsabilidad civil por daños a los concurrentes, según lo establecido en el artículo 14 de la presente Ordenanza.
- Carné de manipulador de alimentos, en caso de preparación o venta de productos alimenticios.

Si el evento incluye el uso de la carpa o de alguna otra infraestructura municipal deberá presentarse el modelo de solicitud existente al efecto.

Artículo 21.—*Placas de prohibido aparcar*

Para solicitar la autorización de colocación de placas de prohibido aparcar en el acceso a una actividad se deberá presentar un escrito de solicitud incluyendo:

- Ubicación exacta de la actividad.
- Titular de la actividad.
- Número de vehículos (en caso de guardería de vehículos).
- Fotografía del acceso al local.

CAPÍTULO VIII

INFRACCIONES Y SANCIONES

Artículo 22.—*Instalaciones sin autorización*

1. La Autoridad Municipal podrá retirar, de forma cautelar e inmediata, cualquier elemento instalado sin autorización en la vía pública, sin perjuicio de la imposición de las sanciones reglamentarias.

2. La ocupación con este tipo de elementos o instalaciones del suelo de dominio o uso público sin contar con la pertinente autorización podrá implicar al responsable la imposición de las sanciones previstas en el ordenamiento jurídico vigente, previa instrucción del correspondiente expediente sancionador. Con independencia de lo anterior se deberán abonar las tasas correspondientes a la ocupación del suelo de uso público que realmente se haya realizado.

Artículo 23.—*Incumplimiento de las condiciones de la autorización*

El incumplimiento de las condiciones de la presente Ordenanza, o de las condiciones de la autorización concedida, dará lugar a la imposición de una sanción económica en los términos de la legislación vigente, previa instrucción del correspondiente expediente sancionador, sin perjuicio de la revocación de la autorización y la consiguiente retirada inmediata de la instalación, en los casos de desobediencia al requerimiento municipal.

Artículo 24.—*Clasificación de las infracciones*

Las infracciones de las normas contenidas en esta Ordenanza se clasifican en leves, graves y muy graves.

1. Son faltas leves:
 - a) La instalación de elementos o instalaciones en la vía pública que no reúnan las características técnicas exigidas en la presente Ordenanza.
 - b) La ubicación de los elementos fuera de la ubicación autorizada.
 - c) El incumplimiento del horario establecido.
 - d) La falta de ornato y limpieza.
 - e) El deterioro de elementos del mobiliario urbano.
 - f) La negación de exhibición de la autorización municipal.
 - g) Los usos impropios del espacio público recogidos en el artículo 12.
 - h) La exhibición en la carpa municipal de carteles que no contemplen la normativa de normalización lingüística o contengan lenguaje sexista, violento o que fomenten malos hábitos de salud.
 - i) El incumplimiento de las condiciones establecidas en la presente Ordenanza que no tengan la consideración de falta grave o muy grave.

2. Falta astunak dira:
 - a) Bide publikoan elementuak jartzea baimenik gabe.
 - b) Udal ikuskatzaileek eta agintariak egindako errekerimen-
duei desobeditzea.
 - c) Azken 12 hilabeteetan hiru falta arin egin izana.
3. Falta oso astunak dira:
 - a) Errespetu faltak: udal ikuskatzaileak eta agintariak irain-
tzea, samintzea edo mehatxatzea.
 - b) Elementuak aldi baterako ez kentzea —jai edota ekitaldi
kultural, zibiko edo kirol-ekitaldien kasuetan—.
 - c) Azken 12 hilabeteetan hiru falta astun egin izana.

25. artikulua.—Zehapenak

Ordenantza honen aurkako arau-hausteak, honako eskala honen arabera zigortuko dira:

- Falta arinak: 500,00 eurorainoko isuna.
- Falta astunak: 500,01 eta 1.000,00 euro arteko isunak.
- Falta oso astunak: 1.000,01 euro eta 2.000,00 euro arteko isunak, eta baimena baliogabetzeko aukera.

Zehapenak ezartzeko orduan, ondoko hauei begiratu zaie: erruduntasun-graduari; egindako faltaren garrantziari; arau-hausteak dakarren arriskuari; berrerortzeari edo berriro egiteari; eta bes-telako inguruabar astungarri edo aringarriei.

26. artikulua.—Zehapen-prozedura

Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeak araututako zehapen-prozedurari buruzko printzipioei egokituko zaie titulu honetan araututako zehapen guztietarako prozedura.

Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legeak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorretako Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak araututako zehapen-ahalmenari buruzko printzipioei egokituko zaie Ordenantza honetan araututako zehapen guztietarako prozedura.

AZKEN XEDAPENAK

Ordenantza indarrean sartzea

Ordenantza hau indarrean sartuko da bere behin betiko onespena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren bihar-munean.

Basaurin, 2017ko urtarrilaren 18an.—Alkatea, Andoni Busquet Elorrieta

(II-318)

2017ko urtarrilaren 19ko 209/2017 Alkatetza Dekretuaren laburpena: Basauriko Udalaren Kultura-politika eta Euskara arloak antolatutako «Karnabas 2017» mozerro lehia-keta («senior» kategoria). BDNS (Identif.): 330126.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 17.3 eta 20.8 artikuluetan xedatutakoarekin bat eginez (testua, osorik, Diru-Laguntzen datu-base nazionalen: <http://www.pap.minhap.gov.es/bdnstrans>), honako hauek zehaztu dira:

Lehenengoa.—Onuradunak

Epaimahaiak, kalitate artistikoa aintzat hartuta, saritutako mozerroak dituzten izangaia.

2. Son faltas graves:
 - a) La instalación de elementos en la vía pública sin autorización.
 - b) La desobediencia a los requerimientos de los inspectores y autoridades municipales.
 - c) La comisión de tres faltas leves en los últimos 12 meses.
3. Son faltas muy graves:
 - a) Las faltas de respeto, mediante injurias, ofensas o amenazas a los inspectores y autoridades municipales.
 - b) No retirar temporalmente los elementos en el supuesto de celebración de actividades festivas, culturales, cívicas y deportivas.
 - c) La comisión de tres faltas graves en los últimos 12 meses.

Artículo 25.—Sanciones

Las infracciones de la presente Ordenanza serán sancionadas con multa de conformidad con la siguiente escala:

- Las faltas leves se sancionarán con multa de hasta 500,00 euros.
- Las faltas graves se sancionarán con multas entre 500,01 euros hasta 1.000,00 euros.
- Las faltas muy graves se sancionarán con multas superiores a 1.000,01 euros y hasta 2.000,00 euros, pudiendo incluso ser revocada la autorización.

En la aplicación de las sanciones se atenderá al grado de culpabilidad, entidad de la falta cometida, peligrosidad que implique la infracción, reincidencia o reiteración, y demás circunstancias agravantes o atenuantes que concurren.

Artículo 26.—Procedimiento sancionador

El procedimiento sancionador en todas las infracciones reguladas en este título se ajustará a los principios de la potestad sancionadora regulados en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones y del Procedimiento Administrativo Común.

El procedimiento sancionador en todas las infracciones reguladas en esta Ordenanza se ajustará a los principios de la potestad sancionadora regulados en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones y del Procedimiento Administrativo Común y por la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

